


# GUaiXE.net



**Binakakoan sakandarrak elkarren kontra**



Kirola >> 20

**Mendiari buruzko jarduerak antolatu dituzte Irurtzunen. Erakusketa, mendi irteera eta hiru diorama ikusteko aukera dago**



Kirola >> 21

## Mozorroak kentzeko gogorik ez



>> 10-18

«Momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero» esanez zirikatu zituzten momoxarroak Urdiainen. ARGAZKIA: FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA.

**Krisiak Sakanan izan duen inpaktua ikertu du CCOOK**

Ilbeltzean 1.972 langabe zeuden >> 6-7

**Lehen sektorea sendotuta, biziberritzeko bidea prestatzen**

Belardi Urduñatik ikasten >> 3

**Begoña Salazarren liburuak altsasuarren memoriarako**

Etzidamu mustuko du erakusketa >> 22

**Lazkoz eta Lakuntza txapelketan aurrera; Leitza lehiara**

Arbizuarra bihar Zubirin >> 23

**Portlandeko espedientea gelditzeko eskatu dio Mank-ek gobernuari**

>> 8

# www.guaiXE.net

1.000 bisita egunero



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Kimetz**  
ZORIONAK pottoko! Lau urte dagoeneko! Mila kilo zorion, eta segi beti bezain alai, maite! Muxu haundi bat, aitatxo, amatxo eta Ixoneren partez.



**Clara Esther eta Físio**  
ZORIONAK Clarutxi eta Físio Tope!! Ez aldatu sekula!! Maite zaituztegu. La Tribu.



**Gaizka Flores Marin**  
ZORIONAK rubiales zure 3. urtebetetzean!! Segi orain bezain alai eta bihurri!! Etxeko guztien partetik.



**Arhane eta Nora**  
ZORIONAK bieien 1. urtebetetzean!! Muxu asko, familiaren partez



**Olaia**  
Hortza galdu zuen printzesari: Nik aurkitu nuen zure hortza! Perez Xagua. Ah, eta ZORIONAK!

## otsailak

# 15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Proiektzioa

**Proiektzioa.** Otsailaren 17an, domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Erreka-zuloak eta arrolak Reunion irlan.** Otsailaren 21ean, ostegunean, 19:30ean Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan. Jotas. Diaporama.

### Zinema

**Gartxot.** Otsailaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan. **KORRIKA kulturala.**

**Argo.** Otsailaren 15ean, ostiralean, 22:00etan, eta otsailaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

### Mendi irteera

**Ezkaba.** Otsailaren 17an, igandean, 8:30ean Irurtzongo Iratxo elkartetik.

**Ergoienako bira.** Otsailaren 17an, igandean, 10:00etan Lizarragako elizatik abiatuta. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**

### Txirrintzula irteerak

**Mirutegi eta harrespila.** Otsailaren 17an, domekan, 8:30ean Altsasuko



Zumalakarregi plazatik eta 9:20an Bioitza kanpian. 53 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Altsasuko inauteriak.** Otsailaren 17ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

**Gazte-txokoko 2012ko argazkiak.** Otsailaren 24ra arte Altsasuko

Intxostiapunta gazte gunean.

**Nepal ekialdea, sherpen herrialdea.** Otsailaren 24ra arte Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan ikusgai. **Joseba Arlegiren argazkiak.**

**Altsasu y sus gentes.** Otsailaren 18tik martxoaren 3ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Begoña Salazar.**

### Tailerrak

**Guraso eskola.** Otsailaren 18an, astelehenean, 15:20tik 17:00etara Irurtzongo Atakondoa eskolan. **Gizarte Zerbitzuak..**

### Bestelakoak

**Hondakin bilketa sistemari buruzko bilera.** Otsailaren 15ean, ostiralean 19:00etan Urritzolako elkartean,

19:00etan Bakaikuko elkartean eta 20:00etan Arruazun herriko etxean; Otsailaren 19an, asteartean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean (euskaraz); otsailaren 20an, asteazkenean 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean (gaztelaniaz) eta otsailaren 21ean, ostegunean, 19:00etan Ziordiko udaletxean.

### Deialdiak

**Sakanan hezkuntza alternatiboko proiektu bat martxan jartzeko.** Otsailaren 15ean, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikineko 5-A gelan. Bilerak irekia da.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 17an, domekan, 20:00etan, Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Otsailaren 18an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Sociedad Deportiva Alsasuaren jarduera aurkezpena.** Otsailaren 18an, astelehenean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

107.3 FM  
**beleixe** online  
edo uhinbak aplikazioaren bitartez [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, ihotekak, Belardi...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

*Piztu irrati!*

**BARANDIARAN HEKIMENEN KUZENDA-RIA:** Alberto Barandiaran kazetari altzarrak izanen da Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkarteko zuzendaria. 20 ur-

tez Euskaldunon Egunkarian eta Berrian kazetari aritua, hainbat hedabideetako laborantzale eta idazlea ere bada.

# ezkaatza >>

## SAKANA

# Lehen sektorea sendotzeko eta biziberritzeko bidea prestatzen

**Urduñako ordezkariekin lan bilera izan zuten larunbatean Belardikoek, haiengandik ikasi eta etorkizunerako lan ildoak zehazten hasteko**

Mikel Cormenzana eta beste hainbat urduñar 1999an hasi ziren "etorkizun duin eta oparago bat izateko baserriak mantendu eta berriak sortzeko" hausnarketa. Bidea diseinatu zuten, "guztien artean estrategia erabaki eta aurrera eraman genuen". Elikadura burujabetza eta haien ekonomia eta elikadura sistemak birlokalizatzeko ekimenak garatu dituzte gaur arte: baserriarren azoka eta abeltzainen azoka garrantzitsu historiko bat berreskuratu dituzte; kontsumo taldeak sortu; produkzioa dinamizatu ahal izateko, erakundeen aldetik produktuen eskaera handitzeko



moduak aztertu dituzte (herriko festak, elkartek, txoznak, ekimenetako sariak), bertako produktuek erabiltzen dituen udal sukaldaria dago, ikasle eta adinduen elikadura kalitatea handitzeko...

Esperientzia horren berri lastailaren 5ean ezagutu zuten Sakanako hainbat ordezkari, Belardikoak barne. Haiengandik ikasitako zutelako, larunbatean urduñarrak lan-bilera batera gon-

bidatu zituzten, "norabide horretan pausuak eman nahi ditugulako". Ekoizpen jasangarria eta duina duten ustiapenak eta beste kontsumo eredu baten alde eragitea da haien helburua. Bai-

na aurrera eraman nahi duten estrategian bidelagun gehiago nahi dituzte.

### Mank-en laguntza

Garapen Agentziako langile Iker Manterola larunbateko bilera izan zen, "eskualderako sektore estrategiko bat" delako. "Ez da soilik lehen sektorea. Gure paisaiak, gure kulturaz eta beste gauza askotaz ari gara. Nekazari eta abeltzainak baitira gure paisaiaren eta gure kultur altzorraren zaindaria".

Etorkizunean sektore horretan lanpostuak sortzeko aukera ikusten dute. "Ikusi dugu zer gertatu den krisialdiak sektore batean gogor jo duenean: eskualde guztia dantzan jarri dela. Ikusten genuen zabaldu beharra dagoela. Naturangertatzen den bezala, biodibertsitatea dagoenean, bateratzen bada ez da dena erortzen. Mantendu egiten da". Mank-eko arduradunek ikusi dute industria erabat baztertu gabe beste sektoreak indartzeko beharra.

## gertutik >>

### Aritz Ganboa

#### Belardiko kidea

**Zein zaudete Belardi elkartean?** Taldeak bi oinarri ditu. Bata ekoizpen jasangarri eta duina oinarri duen eredu. Hau da, baserriaren eredu oinarrituta dauden nekazari eta abeltzainak daude Belardin. Bestea, kontsumo eredu eragitea da. Baserri oinarritutako eredu batean aurrera egin nahi dugu. Guk ezin dugu lehiatu superfizie handien espekulazio sistema horretan. Horretara joaten bagara gure ekoizpen sistema intentsifikatu eta industrializatu behar dugu. Hor batek bizi iraungo du. Gai nontzekoak pikutara joanen gara.

#### Zein erroka dituzte?

2012an azoka bat antolatu ge-

nuen. Aurtengo erroka zen epe motz, ertain eta luzerako plan-gintza estrategiko bat prestatzea da. Hor sartzen da Sakanako Garapen Agentzia. Oso garrantzitsua da. Zeren honekin esaten ari garena da zer lehen sektore nahi dugun Sakanan etorkizunean.

#### Ondoriorik izan du azokak?

Lortu duguna da Sakanako hainbat ekimenetan txertatzen hasita bertako produktuen ikuspegia. Xumeak dirudite, baina garrantzitsuak dira. Esaterako Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatzen duen proba bateko sariak bertako produktuek egiterakoan begiratu dezate la bertan ekoizten dena.

Zenbait udal interesatuak daude azokak berreskuratzen. Bertako ekoizleekin berreskuratu nahi dituzte. Asteroko azoketan leku bat izan beharko genukeela ere hitz egiten ari da. Eskaera bat dago. Ez da guk eskatu dugula, baizik eta udalek eskatu digutela. Eraldaketa horretan Belardik ekimen izatetik estrategia bat garatzera pasa nahi du.

#### Kontsumo taldeekin harremanetan jarri zarete?

Aste honetan biltzekoak gara Lurgorriekin. Helburua ez da kontzentratzea gure produktuak bertan kontsumitzea. Baizik eta ea ados gauden elikadura lokalaren ikuspegi horrekin eta bertako ekoizpen eta kontsumo eredu emanen diren lanetan parte hartzeko prest dauden. Ibilbide horretan beraien burua ikusten duten eta zein ekarpen egin dezaketen jakin nahi dugu. Haiek soilik ekologikoa kontsumitzen dute.

Belardin batzuk ohikoa ekoizpen sisteman gaude, besteak ekologikoan. Altsasuko Amai taldearen kasuan ere, berdin, saskiak banatzen eta dinamika sortzen hasi dira.

Baina herrietako elkartek, festa antolatzaileek... badaukagu denok Belardiren ibilbide horretan ekarpen egiteko modurik? Hori izanen da gure erroka. Batekin eta bestearekin hitz egin eta zein adostasun lor ditzakegun adostu.

#### Aurtengo egitasmorik?

Apirilean egingen dugu Amalurra azoka. Eta beti egon izan diren zenbait ganadu azoka berreskuratze lanean ari gara. Badaude herriak hori berreskuratzea interesgarria izan daitekeela ikusten dutenak. Baina ez da soilik azoka berreskuratzea. Herri hori ere bere lehen sektorearen inguruko diagnostia egiteko gai den. Eta jakitea hemendik 30 urteetara lehen sektoreak izanen duen ga-

rrantzia: egonen den, ez den egonen, egoteko zer egin beharko den... Horretan ari gara.

#### Zenbat kide ditu Belardik?

Dozena bat inguru. Baina ahalik eta kide gehien izatea da helburua. Kide izateko irizpideak jarritzen ditugu. Belardin ez dago lehen sektorea ordezkaturik. Ekoizpen eta kontsumo eredu batean alde egiten dutenak daude. Abeltzaintza estentsiboan aritzen direnak. Zenbait kasutan, horri oso lotuta dago bertako arrazaren alde egitea, esaterako artzaintzan latxa ardia. Ez dugu derrigortzen bertako arrazaren alde egitea baina bai gomendatzen dugu estentsibitatea bermatzen duen arrazaren aldeko apustua egitea. Esplotazio txikiak, familiarrak izatea. Ekoizpen eredu ez industrialean oinarrituak. Enpresa gisa ibilbide bat egiteko prestutasuna izatea. Hazteko potentziala ikusten ari gara. Osorik [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



**ALTSASU**



**OLAZTI**

948 468 755



**ETXARRI**

948 461 660



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

**astekoa**

NON GAUDE - NORA GOAZ

# Memoria galtzen edo berreskuratzen

Orain dela gutxi, Frankismo garaian, Sakanako, eta hainbat tokitako jendeak, kanpora alde egiten zuten etxera soldata bat, edo bi, bidaltzeko. Eta kanpoko diru sartze hori zoragarria bihurtu zen aurrera ateratzeko. 60ko hamarkada bizi izan dugunok, badakigu zenbat joan ziren Suitzara, Alemaniara, Frantziara

edo Ameriketara.

Gizonak baso eta mendietan zuhaitzak moztera, artzain edo, lan egitera. Emakumeak, berriz, etxeko zerbitzurako edo ostalaritzarako. Ezziren denbora errazak, baina garai haiek pasatu ziren, eta pixkanaka lan aukerak zabaldu ziren Sakanan. Altsasun adibidez, "mantxurriano"

deituak etorri ziren lanera; integratzeko edo gaizki ikusiak izateko? Bakoitzak egin dezala bere iritzia.

90 hamarkadan, Sakanako giroa argitu zen. Bazegoen lana ia denontzat, eta kanpoko jendea behar zen. Herri askotara kanpotarrak etorri ziren: Hego Amerikakoak, Europa ekialdekoak

eta abar. Bitartean, aurreko "mantxurriano" asko, erabat integratu ziren. Denak ondo, ala ez? Sakanako giroa ireki dugu beste tokitatik etorri direnei? Edo selektiboak izan gara?

Orain eta berririo, Sakanan lan gabezi kopuru handia dago. Lana kanpoan aurkitu behar, ez hainbeste zuhaitz mozteko, edo etxe-

ko lanak egiteko, baina lan teknikoak harrapatzea. Eta zer nolako tratamendua espero dugu kanpoan? Guk izan duguna kanpotarrek? Eta zenbat amerikar dena galduz bere herrietara itzultzen ari dira? Garai konplikatu hauetan, hausnarketa hauek zabaltea ona da arrazismoa erabat baztertzeko.

## barrutik kanpora

# Urtarrila - otsaila

Latza doa negua preso, iheslari eta senideontzat: Kolektiboko presoek baraua egiten dute asteazken guztietan eskubideengatik / 5 dira aske geratu direnak, 4 preso berriak, 2 estradizio kasuak, hauetatik batek 24 urteko kondena beteta du, aske utzi ondoren beste sei urterako eraman nahi dute kartzelara / 5 dira bizi guztirako kondena berriak, 76 dira denera: Jesus Mari Zabartek 29 urte daramatza eta 2015era urte-

ra arte luzatu diote kondena. Martxoan erabakiko du Estraburgoko auzitegiak kondena hauen aurkako jarrerari eusten dion ala ez / Aurtengo lehen istripua: 13 izan ziren istripuak iaz, 16 dira sakabanaketak eragindako heriotzak / 900 euroko isuna jarri digute zerikusirik ez dugun salaketengatik. Eta abar luzea. Eskubide urraketen kronika latzak du amaierarik.

Asier eta Luis Madrilera alda-

tu zituzten lekuko izateko; epaiketa unean ikusi ahal izan zuten elkar, denbora gutxiz. Asier eta Hodeik azterketak izan dituzte. Luis gorputz guztia ziztadaz bete esnatu zen Valdemoron; zimitz edo txintxeenak zirela eta gaiztotuta zituela esan zioten gaixotegian. Oihan: Nanterretik Fleuryra eraman dute, epaiketa berri bat duelako; autobusa aterako da epaiketara joateko: hil honen 17an aterako da. Hilabete-

ko bisitak kendu dizkiote.

Iazkoa gaindituz, 116 mila pertsona bildu zituen urtarrileko manifestak, Bilboko kaleak gainezka betez. Sakanatik 12 autobus joan ziren, bere kabuz joandakoak asko eta asko izan ziren. Legeak onartzen duena betetzea zen eskatu zena. Politikoei esan zitzaizkien dutela kartzela politika kriminala bere horretan luzarazi. Ez dugu etsiko. ETXERAT NAHI DITUGU


**Sakanako ETXERAT**

## hara zer dien

# Eredu errealago bat

Gaurkoan *Las sesiones* filmaren harira idaztea bururatu zait. Sexualitatea ez da gehienetan osotasunean lantzen komunikabideetan, eta filmei dagokionez sexualitatea pornografiarekin erlazionatzen dugu gehienetan.

Pornografiak noski bere espazioa eskaini eta eskaintzen dio harreman sexualei, baina ezin da ukatu sexualitatea bizitzeko eta harremanetarako eredu bat bultzatzen duela nabarmenki, harreman sexual genitala, eta honekin lotuta genitalen tamainak,

orgasmoa sentitzeko ereduak, eta produktibitatea agertzen dituen elementu nagusi gisa...

Gainera, komunikabideetan sexualitate genitala bultzatzeaz gain, gorputz eredu batzuk ere erakutsi eta bultzatzen dizkigute, gorputz txuriak, gazteak eta argalak nagusituz... Hau dela eta, eredu horretan dauden pertsonak soilik sexualitatea dutela ematen du.

Hau guztiagatik, sexologoek gure eguneroko lanean etengabe beste mezu batzuk zabaltzen

ibiltzen gara, sexualitatea gorputz osora zabalduz, eta pertsona guztien sexualitatea nabarmenduz, bakoitzaren berezitasun eta aberastasunekin. Bide honetan, oso baliagarria da *Las sesiones* filma. Artikulu honetan sexologiari egiten dizkion ekarpen garrantzitsu batzuk aipatu nahiko nituzke:

- Pertsona guztiak gure ezintasun eta berezitasunekin sexuatuak garela eta gure sexualitatea nahi dugun eran bizitzeko eskubidea daukagula erakusten digu.

Sexualitatea pertsonon ezaugarri moduan erakutsiz, gorputza, garuna, eta bihotza sexualitatearen elementu garrantzitsuak direla agertuz.

- Pornografian agertzen diren ezaugarriak (potentzia, oihuak, azkartasuna) eta gorputz ereduak albo batera utziz, film honek gorputz ezberdinak, naturaltasuna, emozioak (beldurra, gogoa, jakin-mina...) eta sentimenduak (maitemina, maitasuna, elkartasuna, entzuketa) ikusteko aukera eskaintzen digu. Elementu hauek pertsonen sexualitatean etengabe agertzen diren elementuak direla uste dut. Eguneroko lanak nabarmen dit, hauek direla askotan dantzan ditugun elementuak eta

gutxitan erreparatzen diogula, detaile xumei, gorputz osoaren elikatzeari, bestea entzuteari, bestearen inperfekzioan edertasuna bilatzeari...

Komunikabideak gaur egun sekulako indarra daukate iritziak eraikitzearakoan, eta horregatik horrelako filmak eskertzeak dira, irudiekin, denbora mugatu batean gure burua elikatzen laguntzen dutelako, eta gure sexualitateaz asko ikasi dezakegulako. Ziur, aipatutakoaz gain elementu askoz gehiago topatuko dituzuela, nik ezin dut ukatu filmak asko erakutsi eta bihotze hunkitu ninduela.

**Olatz Berastegi, Lilima Taldea**

## Guaixe

**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa

**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa

**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea

**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

**Zuzentzailea:** Maria Luisa Zelaia Mendia

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 4.500 ale

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO

**URDIAIN ESKOLAKOAK ROBOTIKA LEHIAKETAN:** Igandean Urdiaingo ikasle- en talde batek First Lego League (FLL) robotikako lehiaketan parte hartuko du.

Lehiaketa horren helburua ikasleen artean zientzia, teknologia, berrikuntza eta ekin- tzaileen balioekiko interesa sustatzea.

# sakanerria >>

## SAKANA

### Hil beltza langabezian ere

**Urteko aurreneko lehen urtean 108 langabe gehiago daude**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden sakandarraren kopuruak gora egin du, 1.972ra iritsi arte. Haietatik 973 gizonekoak dira (%49,43) eta 999 emakumezkoak (%50,66). Agorrilean gorako bidean jarri zen langabezia eta ez du etenik. Adinari dagokionez, 25 eta 44 urte artean dituzte langabe gehienek, 964 (%48,88). 45 urte baino gehiago dituzten langabe sakandarrak 788 dira (%39,96). Lan eske dauden 25 urtetik beherakoak, azkenik, 220 dira (%11,16).

Sektoreka, zerbitzuetan lan egin nahiko luke %51,27 (1.011). Eskaragehiendituen bigarren sektorea industria da, 661 (%33,52). Ondoren

Langabezia udalerrika		
Udalerrria	Guztira	Aldea
Altsasu	948	51
Arakil	87	13
Arbizu	77	5
Arruazu	4	0
Bakaiku	19	0
Ergoiena	16	6
Etxarri Aranatz	213	13
Irañeta	8	-1
Irurtzun	201	9
Iturmendi	18	-1
Lakuntza	106	2
Olatzagutia	144	10
Uharteko Arakil	72	3
Urdiain	33	0
Ziordia	26	-2
<b>Guztira</b>	<b>1.972</b>	<b>108</b>

eraikuntza (%8,06, 159) eta lehen sektorea (%1,88, 37) datoz. Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzan sakandarrak 104 dira (%5,27).



### Geroa Bai toki-entitateen maparen erreforma proposamenaren kontra

**Epe ertainean toki-entitateen eskumenak eta finantza baliabideak zein diren jakin gabe ezin dela egin argudiatu du**

Geroa Bai Nafarroako Gobernuari eskatu dio atzera bota dezala toki administrazioa berrantolatzeke foru legea. Koalizioko Manu Aierdi, Patxi Leunza eta Unai Hualde kideek adierazi dute ez dela "ez unea, guztiz desegokia da". Geroa Bai kideek esan dute ez daudela garbi "ez eskumenak ez finantziarioa". Horregatik, gobernuari "etxea teilatutik hastea" leporatu dio.

Lege egitasmoak tramitazioa aurrera eginen balu, Geroa Bai 10 emendakin aurkeztu ditu, par-



te-hartze defizita zuzendu eta toki-erakundeek protagonismo gehiago emateko. Aldi berean, udalkek zerbitzuak bateratzeko haien borondatea bermatzea nahi du koalizioak. Gobernuaren proiektuan jasotako 6 mankomunitateen ordez 8 proposatzen dituzte Zangoza-Pirinioak eta Baztan-Bortziri-Sakana bitan banatuz.



## 28ko greba legeztatuta

Hilaren 28rako Sakanan deitu den greba orokor deialdia erregistratu zuten antolatzaileek ostiralean. Aldi berean, Iruñean egindako agerraldian hainbat udal ordezkari Sakanak bizi duen "emergentzia" egoera gaztigatu zuten. Kri- siak Sakanan arrasto latza utzi duela nabarmendu zuten.

2011n mahaiaren sorreran parte hartu zutela eta hainbat erabaki hartu zituztela gogorarazi zuten. Haiei zegozkienak martxan jarri zituzte, Nafarroako Gobernuari egindako eskaerak ezeztatu erantzuna jaso zuten. Salatu zuten, gauzatu gabe gelditu da Sakanako Garapen Agentzia eta Nafarroako Gobernuaren arteko marko egonkor bat sortzeko eta elkarlanean ari-

**Diputazioko atean gobernuari inplikazioa eskatzen**



Hainbat udal hautetsi eta LABeko langile ordezkari atzo kontzentrazioa egin zuten Iruñean, diputazio pareaan. Sakanan, krisi mahaian erabaki ziren proiektuak lagundu eta finantzatzeke eskaera eraman dute gobernuaren egoitzara. Sakanan erabakitzen denaren alde egiteko eskatu dute bildutakoek.

tzeko aukera. Sakanarako Plan Estrategikoa dinamizatu eta idazteko, energia ikerketa bat egiteko,

industria-eremuen analisisa egiteko eta Sakanako Agenda 21 ezartzeke laguntzarik. +www.guaixe.net



## MOTZEAN

### Herri inauterian zikindutako eraikinak garbituko ditu udalak

Larunbatean ospatu zen Olatzagutiko herri inauteria eta, ohi denez, zamar handi eta txikiak ibilbidean opatzen zutenei turba botatzen egon ziren. Zenbait eraikin ere zikindu zituzten. Tartean plazan dagoen Lourdes Goikoetxea lehendakariorde eta kontseilariaren familia etxea. Ondoren botatako euriak nabarmenena kendu badu ere, udalak garbitu egingen du.

Ohar banaren bidez, PPK eta UPNk gobernu kidearen etxeari ongaria botaz eraso egin ziotela jakinarazi zuten. Gertaera kondenatu eta gaitzetsi zuten. +www.guaixe.net

### Elurraren arrastoa

Argindar mozketarekin etorri zen elurra asteartean. Telekomunikazio linea batean pilotutako izotzak hura erortzea eragin zuen eta Ormaiztegi-Altsasu argindar linea azpian hartu zuen. Horren ondorioz Sakanakomakina bat herritan argindar mozketak izan ziren 7:30etik aurrera. Hainbat ordu falta izan zen argindar hornidura. Esaterako Iturmendin 12:30 aldera bueltatu zuten, Altsasun ordu bat geroago eta Olatzagutian, 17:00ak aldera bueltatu zuten. Asteazkenean, berriro, herri erdia argindarrik gabe zegoen. Altsasuko Ondarria industrialdean eta Txunkai auzoan herenegun 17:00etan bueltatu zen argindarra, 12 ordu gabe egon ondoren. Aurretik, Olatzagutia eta Ziordia arteko argindar linean zuhaitz batzuen erorketak horniduraren eten laburra sortu zuen.

### Trenbide-pasa kentzeko proiektua jendaurrean

**Hilabetez egokituz jotzen dituzten oharak edo alegazioak aurkez daitezke**

Izurdiagako trenbide-pasa proiektua Sustapen Departamentuko Azterlan eta Proiektuen Zerbitzuaren bulegoetan, baita Arakilgo Udalaren eta Izurdiagako Kontzejuren bulegoetan dago ikusgai, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen desjabetze espedientearekin batera. Hura aztertu eta ohar eta alegazioak egiteko aukera izanen dute interesatuek. Izurdiagako Kontzejuko buru Jose Luis Garcia Urbistondok azaldu digunez, ez dakite lanak noiz hasi litezkeen. "Dirurik ez dagoela esaten dute. Lanak aurten hasiko diren esperantza gutxi" duela azaldu digu.

## Bazkide zozketa



**OTSAILEKO SARIAK:**  
-GRAXIANA ATERPETXEAN BI LAGUNTZAKO BAZKARIA+ TRIMANERAKO 4 SARRERA

-EKAINBERRI KOBAZULOETARAKO 2 SARRERA+ TRIMANERAKO 4 SARRERA  
-TRIMANERAKO 4 SARRERA  
-TRIMANERAKO 4 SARRERA

## Non erabili

### Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

#### KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

##### ZIORDI

30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

#### JON CORDON TAXIA

##### IRURTZUN

%10eko deskontua.

#### JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

##### ALTSASU

50 €-ko erosketa batengatik %10eko deskontua.

#### LURESU

##### ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

#### JAVIER AIZPUN HARATEGIA

##### UHARTE ARAKIL

50 €-ko erosketetan, etxe-ko produktua doan.

#### MARTIARENA GAZTANDEGIA

##### UHARTE ARAKIL

%5eko deskontua.

#### BERGARA CENTRO OPTICO

##### AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

#### FLORY ILEAPAINDEGIA

##### ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan. 40 €-tik gorako lanetan bekainen apainketa doan.

# Krisia datutan

Krisiaren lurralde-inpaktua Nafarroan, eta haren baitan Nafarroako langabeziaren mapa argitaratu berri du CCOOren Ikerketa

Bulegoak. Foru erkidegoko eskualdeetan krisiak zein eragin izan duen jakiteko balio du ikerketak. Baita "krisiaren ondorio-

ak zuzentzeko eskualde mailan zehaztu behar diren proposamenak egiteko oinarri izan daiteke" ikerketa ere.

Lana egiteko udalerrietako 4 datu izan dituzte kontuan: langabezia, kontratazioa, gizarte segurantzaren afiliatutakoak eta udal errolda. CCOOko ikerlariek Nafarroa azpi-eskualdeetan banatu dute eta ibarra bitan banatu dute: Sakana ekialde-erdialdea (Arakil-dik Iturmendiraino) eta Burunda

mendebaldea (Urdaindik Ziordira). Lanak erakutsi du krisiak gogorrago jo dituela eskualde batzuk besteak baino. Eta azken horien artean dago Burunda mendebaldea. Eta horren arrazoia "jarduera ekonomikoaren dibertsifikazio faltari edo enpleguaren kalitate" izan litezkeela aipatu du.



## Potentzialki aktiboa izan daitekeen populazioa

Definizio horren pean 16 eta 64 urte bitarteko pertsonak sartzen dira. 2008 eta 2011 artean potentzialki aktiboa izan zitekeen kopurua Sakanan 15 pertsona egin du behera, 13.514an geldituz.

Sakana mendebaldean (SM) 2011n 6.816 pertsona zeuden izendapen horren barruan, 2008an baino 7 gutxiago. Ibarren beste zatian 6.698 ziren (-8).

Nafarroan, berriz, igo egin da. Kontuan hartu beharreko faktorea da gizarte zahartzen ari dela. Nafarroa, 65 urte baino gehiago dituen estatuko 9. erkidegoa da.

**Errolda eta potentzialki** aktibak diren pertsonen kopurua kontuan hartuz gero, ikertutako 3 urteetan apenas aldatu da. Sakana mendebaldean %65,14 (-0,75) eta

Sakana ekialde eta mendebaldean (SEI), berriz, %64,95 (-1,5). Nafarroako datuaren azpitik (%66,04) dago ibarra.

**Generoari** dagokionez, antzeko parametrotan gaude Sakanan (SM 53,17 gizonezko 46,83 emakumezko eta SEI 54,18 /45,82) eta Nafarroan (51,45 /48,55). Foru erkidegoan batz bestekoarekin alderatuta emakumezko gutxiago dago lanerako Sakanan.

**Sorterriari** Nafarroako batz bestekoa baino atzeritar gutxiago daude Sakanan lanerako adinean (SM 88,66 estatukoak / 11,34 estatuz kanpokoak eta SEI 90,95 /9,05). Generoan gertatzen denaren kontrako gertatzen da Sakanan langileen sorterriari erreparaturaz gero.



## Langabezia

Langabezia proportzioa Gizarte Seguratasuneko afiliazioa kontuan hartuta			
Azpi-eskualdea	2008	2011	Aldea
Sakana mendebaldea	%7,29	%28,42	21,13
Sakana ekialde-mendebaldea	%7,65	%19,08	11,43
Nafarroa	%9,07	%20,33	11,27

Langabezia populazio potentzialki aktiboa kontuan hartuta			
Azpi-eskualdea	2008	2011	Aldea
Sakana mendebaldea	%5,06	%15,21	10,16
Sakana ekialde-erdialdea	%4,62	%10,02	5,40
Nafarroa	%5,91	%12,25	6,34

Hainbeste enpresaren itxieraren eta enplegu erregulazio espedienteren ondoren, ikerketak agerian utzi du Burunda Mendebaldean langabezia Nafarroan baino gehiago hazi dela ikertutako 3 urteetan. 10,16 puntu, %15,21ean geldituz langabeen kopurua. Sakana Ekialde eta Erdialdean, berriz, lehen eta orain langabezia tasa Nafarroakoaren azpitik egon da, eta gutxiago hazi da (5,4).

Langabezia				
Azpi-eskualdea	2008 otsaila	2012 otsaila	Aldea	
			Kopurua	%
Sakana mendebaldea	345	1.037	692	%200,6
Sakana ekialde-erdialdea	310	671	361	%116,5
Nafarroa	24.592	51.944	27.352	%111,2

Sakanan lau urtetan langabeziak %160 egin du gora (1.053 langabe gehiago), Nafarroan baino 49 puntu gehiago. Baina igoera hori nabarmenagoa da ibarren mendebaldean, ia enplegu osotik herrialdeko langabezia tasarik handiena izatera pasa da. Gainontzeko langabeziaren igoera Nafarroaren antzeko-agoa izan da (%116,5), 5,3 puntu altuagoa bada ere.

Langabezia eta generoa (%)				
Azpi-eskualdea	2008		2012	
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Sakana mendebaldea	37,10	62,90	50,63	49,37
Sakana ekialde-erdialdea	38,71	61,29	43,22	56,78
Nafarroa	40,14	59,86	49,55	50,45


Azken 4 urteetan emakumezkoen langabezia bai Sakanan bai Nafarroan %60 ingurutik %50era jaitsi da. Baina jaitsiera ez da izan emakumezkoen lan egoera hobetu delako, baizik eta gizonezko gehiago gelditu direlako langabe. Populazio aktiboan kopuru txikiagoa dira emakumezkoak eta langabeziak ere haiei gutxiago eragin die.

Adinari erreparaturata, 36 eta 45 urte bitarte dutenen artean jo du gogorren langabeziak azken lau urteetan. Gainontzeko adin tarteetan Nafarroaren paretsu gabiltza. Gainera, populazioa zahartzean lan eskatzaile gazteenen kopuruak ere behera egin du.

Langabezia eta sorterria (%)				
Azpi-eskualdea	2008		2012	
	Estatukoak	Estatu kanpokoak	Estatukoak	Estatu kanpokoak
Sakana mendebaldea	84,35	15,65	86,79	13,21
Sakana ekialde-erdialdea	85,48	14,52	84,50	15,50
Nafarroa	82,58	17,42	79,69	20,31

Sorterriari erreparaturata ikerketak agerian utzi du Burunda mendebaldeko 4 herrietan lan bila dabil-tzan atzeritarren kopuruak 2,44 puntu egin duela behera. Sakana ekialde eta erdialdean, berriz, 0,98 besterik ez da hazi, Nafarroan hazkunde 2,89koa izan denean. Potentzialki aktiboak direnen datuekin gurutzatuz gero ikerketak agerian utzi du langabeziak gogorrago jotzen dituela sakandar berriak, 2008an eta 2012an.

Datuek erakusten dutenez gero eta prestatuagoak dira langabeziaren dauden pertsonak. Presta-



kuntzak langabeziaren gelditzeko aukerak murrizten dituela uzten du agerian ere.

Sakanako langabetuen heren batek langabeziaren urte bat baino gehiago darama.

# Aukeratu Guaixe

Proiektu zenbakia: 50410

## cajanavarra

Nafarroan erroldatuta egotea eta 18 urte edo gehiago izatea.  
Bete formularioa, sinatu eta ekarri bulegora.  
Zuri esker 10€ko laguntza jasoko dugu.  
[www.cajanavarra.com](http://www.cajanavarra.com)



Krisiaren lurralde-inpaktua Sakanan

# Gizarte Segurtasuneko afiliazioa

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Afil/Err	Afil/Err	Afil/Err	Afil/Err
	Guztira	6-64 urte	Guztira	16-64 urte
Sakana mendebalde	45,73	69,40	34,87	53,54
Sakana ekialde-erdialde	40,15	60,42	34,11	52,51
Nafarroa	43,72	65,13	39,79	60,24

Gizarte Segurantzaren izena emana dutenen kopuruak ere behera egin du. Nafarroan 3 urteetan afiliazioa 4,89 puntu jaitsi zen bitartean, Burunda Mendebaldean 15,86 eta Sakanaekialde eta erdialdean 7,91 jaitsi zen.

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Sakana mendebalde	4.735	3.649	-1.086	-%22,94
Sakana ekialde-erdialde	4.052	3.517	-535	-%13,20
Nafarroa	271.217	255.450	-15.767	-%5,81

Ibarreko afiliatuen kopuruak %18,44 egin du behera (1.621 gutxiago), Nafarroarekin alderatuta nabarmen jaitsi da.

Ibarreko langile gehienak gizarte segurantzaren erregimen orokorrean daude. Sakana mendebaldean %80,76 erregimen orokorrean, %17,95 autonomia, %0,99 etxea eta lehen sektorean %0,30 daude izena emanda 2011n. Sakana ekialde-erdialdean, berriz, %70,69 erregimen orokorrean, %26,78 erregimen orokorrean, %1,65 etxea eta %0,88 lehen sektorea.



**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**  
**eskaintza**  
948 564 275 argi@guaixe.net

bisita txartelak:  
**200 ale 88€**  
**800 ale 118€**  
diseinua eta inpresioa

**TxikiTxo**

**Leku ona**  
jonekua eta landak

**BALTEGI**  
www.baltegi.com

**NEREA**

## Kontratazioa

Azpi-erregionaldea	2008 kontratuak		2011 kontratuak		Langabezia aldaera 2008-2011 Kopurua %
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Sakana mendebalde	3.042	2.182	-860	-28,27	
Sakana ekialde-erdialde	2.435	2.524	89	3,66	
Nafarroa	238.821	221.065	-17.756	-7,43	

Nafarroan kontratuak egiteko beherako joerarekin egiten du ibararren mendebaldeak, ez horrela gainontzekoa zatiak.

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Mugagabeak	Aldi baterako	Mugagabeak	Aldi baterako
Sakana mendebalde	12,29	87,71	8,62	91,38
Sakana ekialde-erdialde	13,92	86,08	6,02	93,98
Nafarroa	10,81	89,19	6,65	93,35

Krisiaren eta ekarri dituen lan erreformen ondorio izan da aldi baterako kontratuen kopuruak gora egitea.

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Sakana mendebalde	49,01	50,99	43,26	56,74
Sakana ekialde-erdialde	74,41	25,59	67,16	32,84
Nafarroa	48,14	1,86	52,12	47,88

Burunda mendebaldeko herrietan kontratu gehienak emakume izena eramaten segitzen dute. Ibarren beste zatian sinadura horiek kontratuen herena besterik ez dira.

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Estatukoa	Estatu kanpokoa	Estatukoa	Estatu kanpokoa
Sakana mendebalde	78,53	21,47	88,63	11,37
Sakana ekialde-mendebalde	69,61	30,39	82,41	17,59
Nafarroa	71,69	28,31	80,22	19,78

Ia erdira jaitsi da sakandar berriei egindako kontratu kopurua 2008 eta 2011 artean.

Azpi-erregionaldea	2008				2011			
	16-25	26-35	36-45	> 45	16-25	26-35	36-45	> 45
Sakana mendebalde	29,85	29,75	24,52	15,88	28,14	24,98	22,46	24,43
Sakana ekialde-erdialde	35,98	33,31	20,04	10,68	33,72	31,70	19,45	15,13
Nafarroa	30,57	33,53	21,98	13,93	26,08	33,63	24,02	16,28

35 urte bitarteko pertsonak kontratatu izan dira gehien bat Sakanan, hau da, aldi baterako kontratu gehiago sinatzen dituztela. 36-45 adin tartean kontratu kopuru jaitsi egin da 3 urteetan, igo, berriz, 45 urte baino gehiago dituztenen artean. Nahiz eta kopuru gutxien sinatzen diren tartea izaten segitzen duen.

Azpi-erregionaldea	2008		2011	
	Baxua	Ertaina	Baxua	Ertaina
Sakana mendebalde	51,70	30,11	18,19	51,88
Sakana ekialde-erdialde	56,25	29,29	14,46	48,29
Nafarroa	61,76	24,26	13,98	60,07

Ikerketa aldian soilik gora egin du ikasketa ertainak dituztenen kontratazioak Sakanan.



**Argazki Lehia**

**Neguko**  
**argazki lehiaketa**

**>> Saria:** RAMOS dendak eskaintako MP3 bat

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izan dira. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatua izatea. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidaltako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jenduraren erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dilo Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko alipamena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astelehenean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.



Erredakzioa ixtean 15 langilek emana zuten izena boluntarioki ateratzeko, beste batzuk atzertzen ari ziren.

## Zuzendaritzak eta UGTK bideragarritasun plana hitzartu dute

Ostiralerako arteko epea eman zien Nafarroako Gobernuak Sunsundegui-ko aldeei bideragarritasun plan bat aurkezteko. Akordioa ostiralean ilundu berritan adostu zuten zuzendaritzak eta langileen ordezkariak (UGTKo 5 eta independentea), gainontzeko 7ak (ELAko 4 eta LABeko 3) ez zuten sinatu.

Astelehenean gobernuari aurkeztu zitzaion bideragarritasun planean jasotzen denez, 78 langile kaleratuko lirategi: errelebo kontratuan dauden lauri etengo litzaieke; 55 urte baino gehiagoko 11 aurrejubilatuz (boluntarioak); urte batera 10 langileri kontratua eteteko enplegu erregulazio espediente eta 53 kaleratze. Asteazkena bitartean boluntario aurkezten direnak lan egindako urte bakoitzeke 25 eguneko kalte ordaina emanen liekete, urte bateko mugarekin. Boluntario aurkeztu ez eta kaleratzen dutena 20 eguneko kalte ordaina. Gelditzen diren langileen lan baldintzak oraingoran mantenduko lirategi.

Sunsundeguiaren enpresa ereduari dagokionez, bideragarritasun plan horretan jabetza aldatzea aurreikusen da. Akzioen jabetza heren bana izanen dute langileek, zuzendaritzak eta inbertsiogile batek. Horretarako alde bakoitzeke milioi erdi euro jarri beharko ditu, enpresa kapitalizatzeke balio-

ko duena. Sodena 3 urtez mantenduko litzateke Sunsundegui.

### Iritziak

UGTKren helburua "industria proiektuaren jarraipena bermatzea" izan da; "ixten den enpresa ez baita zabalitzen". Ixtearen kostua "dramatikoa" izanen zela ere gaineratu dute: "Sunsundegui ixtearekin batera beste 13 enpresak itxiko lukete eta lauzpabost itxeko arriskuan geldituko lirategi". UGTtik azaldu dutenez, "asmoa da orain txikiagoak izanik, epe ertainera haztea". 90eko hamarkadan lantegia 114 langilerekin gelditu zela ere ekarri dute gogora. Gaineratu dute enpresak, hasiera batean, 84 langile kaleratu nahi zituela. Enpresa utziko duten langileen boltsa ere sortuko omen da, behar denean lanera buelta daitezten.

UGTKo ordezkariak Nafarroako Gobernuari eskatu diote inbertsiogilea ez dadila edozein izan, "marka bat baizik; teknologia eta lana ekarriko duen marka bat". Sunsundegui SA izaten jarraituko duen edo SAL bat ez dagoela oraindik erabakita esan digute UGTtik. Aldi berean, Nafarroako Gobernuari Sunsundegui duen zorra barkatzeko eskatu diote, inbertsiogileren bat erakartzeko. "Enpresa inolako zorrik pagatu gabe itxiko balu 27 milioi euro

ordaindu beharko litzateke. Itxiera ordenatu batekin 35. Baina enpresa zabalik gobernuak zergetatik eta dirua berreskuratuko luke".

ELAk kaleratzerik ez zuen onartzen eta bestelako neurriak proposatu zituen negoziazio aldiaren inzentibatutako bajak; 55 urte baino gehiago dituzten 22 langileren aurrejubilatuz; soldata eta lanaldiaren %10 jaitzi (10 lanposturen pareko murrizketa); urte baterako nahi beste irteera eta azpikontratek egiten dituzten lanak barneratzea (35 langile gutxienez) eta kontratuak eteteko enplegu erregulazio espedienteak.

Negoziazioan izan ziren ELAko kideek esan diguten hasieran 3 sindikatuak kaleratzeak borondatezkoak izan behar zutela, "ideia horrekin joan ginen, baina UGT desmarkatu zen". Sindikatuko kideen iritziz gaudenak beharrezkoak gara, "joan den urteko lan karga bera izan behar dugulako. Eta urtetik urtera gehiago aurreikusen delako. Hobe trebatutako langileak izatea, ez trebatu behar dituzunak baino".

Adostutako bideragarritasun planaren ondoren, Altsasuko enpresaren etorkizuna Nafarroako Gobernuaren eta Sodenaen esku dagoela uste dute ELAn. Enpresa ereduari dagokionez, sinatutakoaren arabera Sunsundegui SAL

eredurantz joko duela uste dute ELAn. "Ezgaude halako baten kontra, baina bai kaleratzeen kontra". Kaleratzeke boluntarioa agertu edo ez, kalte ordainaren artean alde gutxi dagoenez jendeak interes gutxi azaldu zuela gaineratu digute. Aurreko kaleratzeetan kalte ordain handiagoa izan zela eta ELAkoek hura igotzea ere eskatu zuten bukaeran.

Azkenik, zuzendaritzarekiko duda asko sortu zaizkio ELAri. "Sodenaen ordagoa iritsi arte ez dute bideragarritasun plana egin. Berregituratze plana eta bi akordio, bete ez direnak. Eta orain 3 egunetan bideragarritasun plana aurkezten dute, hainbeste galera pilatu ondoren".

Gertakarien garapenaren zain, LABek aurrerago egingen du akordioaren balorazioa. Bikontunabarmentu nahi izan dituzte hala ere: akordioa ez duela enpresa batzordearen gehiengoak sinatu eta ez duela langileen asanbladak berretsi.

### Aurreikuspenak

Aurten 158 autobus egitea aurreikusen du Sunsundegui eta 2014an 170. Autobus karrozatzaileen egoera ere ez omen da xamurragoa. Irizar bere ekoizpen ahalmenaren erdira ari da. Gironako Noge enpresak bere itxiera iragarri du. Zaragozako Hispano ere antzeko omen dabil.

## Portlandeko espedienteak eskatu dio Mank-ek gobernuari

Mank aztertzen ari da NHKPIko epaia behin behinean exekutatzeko eskatzea

Sakanako Mankomunitateari arrazoi emanaz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala 2010-2020 (NHKPI) baliogabe utzi du eta gobernuak helegiteko asmoa azaldu du. Hori dela eta, Manketik zenbait gogoeta publiko egin nahi izan dituzte.

Mank-eko arduradunen iritziz, epaiaren edukiagatik ulertzen da gobernuak Olaztiko porlandegiaren Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorialeko (UGPS) tramitatzean izan duen presura. Mank-eko buruak porlandegian hondakinak erretzearen kontra daudela berretsi dute. Eta epaia kontuan hartuta, ibarreko erakundetik Nafarroako Gobernuari eskatu diote porlandegiko espedientearen inolako urrats administratiborik ez emateko. "Ezin da esan Planak eta Olatzagutiko porlandegiaren espedientearekin loturirik ez duela, are gehiago UGPSri Mank-ek jarritako alegazioak atzera botatzeko hura erabili zenezan".

Enpresa pribatuek halako azpiegituren kokapena ezin dutela zehaztu ere jasoa dago epaian. Horregatik guztiagatik, Mank-ek eskatu du gobernuaren helegitearen epaia etorri bitartean porlandegiaren espedienteak gelditzea; "atzera bueltarik ez duten urratsak ez egiteko edo eskubi-deak hartu eta gero enpresari kalte ordain handirik pagatu behar ez izateko". Sakanako Mankomunitatean aztertzen ari da epaia behin behinean exekutatzeko eskatzea.

Epaia argi utzi zuen Nafarroako Gobernuak Hondakinen 10/1998 Legea urratu zuela, hondakinak ezabatzeko azpiegituren kokapena edo lokalizazio irizpide zehatzak ez zituelako eman. "Gobernuak propio ez zehaztuen egin, errauskailua hartu zezaketen toki potentzialetan gizarreak kontra egingo zuelako".

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Ongi pasa inauterietan!

maríaeugenia  
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

Asteazkenetan eta ostiraletan  
deskontu bereziak  
produktu freskoetan

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

Iturgintza  
Berogintza  
eta Gas



PEIO

659 286 344



## Mozorroa kentzeko gogorik ez!

**Argazkiak:** Guaixe, Francis Irigoien, Aitor Satrustegi, Maribel Senar, Ainara Aberasturi, Eneka Irizar eta Argazkari.

# Mozorroa kentzeko gogorik ez!



OLAZTI



ALTSASU



ETXARRI ARANATZ



ALTSASU



URDIAIN



ALTSASU

## HIRIBERRI

## Mozorro bazkaria bihar

Ihote bazkaria hartuko du Txitera elkarteak biharkoan. Hara biltzen direnak mozorrotuak joanen dira. Bazkalondo animatuaren ondoren parrandarekin segitzeko, mozorro

eta guzti Altsasuko hiri-inauterira joanen dira hiriberriarrak.

## IHABAR

## Moxorroak hemen dira

Bi eguneko ihote ospakizunak bihar hasiko dituzte Ihabarren. Gazteak 11:00etan bildu eta baserritarrez jantzita, puska biltzea egingen dute. Gazteek jasotakoa ospakizunetako bi egunetan Gure Kabiya elkartearen egingen dituzten bazkarietarako izanen dira. Bihar, esaterako, bazkaldu ondoren, moxorrorroak etxez etxeko erronda egingen dute, 18:00etatik aurrera. Bidean opatzen dituztenak zigorrek berotu eta bestelakoekin zikintzeari ez diote utziko. Errondaren ondoren, 22:00etan herri-afaria eta dantzaldia izanen dute.

Etzi, berriz, gazteak bazkaltzera bilduko dira. Iluntzerekin batera, Aitezarkoa, Landarra, Ninia eta Hartzak osatzen duten familia herrian agertuko dira. Eta haiekin batera moxorroak. Txistulariak lagun kalejira egingen dute, Aitezarko gaiztoa sutara bota eta landarraren negarrak entzuten aurretik. Bukatzeko otamena izanen da.

## BAKAIKU

## Kamarroak bueltan

Bakarrekotxea elkartearen bihar egingen den bazkariarekin hasiko dira ihote ospakizunak, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, Bakaikuko Gazte Asanbladak kamarroz jantzteko egindako gonbitea onartu dutenak euren eraldaketa hasiko dute. Hura despedituta, mozorrotuak, 18:00ak aldera etxez etxeko erronda egingen du segizioak, lehen lehenik trenbide aldera jaitziz. Musika lagun, kamarroekin batera, gurdia, golda, suko hautsa barratuko dutenak izanen dira. Errondak parrandari emanen dio segida.

## ALTSASU

## Mozorro zopa biharko

>> **Otsailak 16, larunbata**  
**12:30etik 15:00etara** Haize Berriak bandaren kontzertua, Foru plazan.  
**18:00etan** Dantzaldia Haize Berriak bandarekin, Foru plazan.  
**20:00etatik 22:00etara** Mozorro dantzaldia Trikidantz taldearekin.  
**00:00etatik 3:00etara** Mozorro dantzaldia Trikidantz taldearekin.

## OLATZAGUTIA

## Hiri inauteria

>> **Otsailak 16, larunbata**  
**12:00etan** Hartu tramankuluak, futbito pistan elkartuko gara. Mozorrotuen kalejira.  
**14:30ean** Herri bazkaria, frontoian.  
**17:30etik 19:30era** Errege txaranga banda.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia, plazan. Euria egiten badu, frontoian.  
**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia, plazan. Euria egiten badu, frontoian.



ARBIZU

INAUTERIAK 2013 >> Mozorroa kentzeko gogorik ez!



Mozorroa kentzeko gogorik ez!





Mozorroa kentzeko gogorik ez!





Mozorroa kentzeko gogorik ez!




INAUTERIAK 2013 >> Mozorroa kentzeko gogorik ez!





Mozorroa kentzeko gogorik ez!





ALSASU. 60 URTEURRENA



URDIAIN



ITURMENDI



BAKAIKU



ETXARRI ARANATZ. ARGAZKARI



ARBIZU



LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



## Ciriaco Herrero Palomo

V. urteurrena

Zu gabe baina beti bizirik gure bihotzean.

Zure familia



## Felipe Ceberio Maiza

Felipe, maiteminduen egunien beste urtiat beteko ziñuben. Fankogan tokie eta yonkogan tokiyen zu gukin yonkoza beti.

Zu familiye

Etxarri Aranaz-Urdiain



## Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275  
zorion@guaixe.net



## Jose Albizu Beldarrain "Moro"

IV. urteurrena

Banintu bi hegal joan nindaik berehala zure leiho begira kantuz agurtzera

Bere emaztea, seme alabak eta bilobak



## Jose Luis Sola Larraburu

Ez zaitugu ahaztuko

Otsailak 17, igandea, 12:00etan meza ospatuko dugu Etxarri Aranatzeko parrokiari.

54ko kintoak

Etxarri Aranaz

# guaixe.iragarkilaburrak.com

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

### Lana/ Negozioak

#### LAN ESKARIA

Neska euskalduna lan bila. Asteazken zehar goizetan edo aste bukaetan. Izaskun 653-99 80 35.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

Etxea salgai lhabarren. Telefonoa: 678-23 40 91.

Pisua salgai Altsasun. 2. eskukoa eta ia-ia erabili gabe. Altxariak jarrita. Prezio ona. Telefonoa: 618-19 07 24.

### Opatutakoak / galdutakoak

#### OPATUTAKOAK

Autoko giltza Beriainen. Beriainen autoko giltza bat aurkitu dugu. Jabeak dei dezala 948 461 991ra.

### GALDUTAKOAK

#### Osasun kartila bat galdu da Altsasun.

Ekhiñeren izenean dago. Opatu duenak, mesedez, hots egin dezala 948 56 32 80 telefonora.

### Txupa marroia eta zilarrezko eskumuturreko bat.

Otsailaren 9an Altsasun galdu nituen. Mesedez, opatzen badituzu 696-23 74 16 telefonora hots egin. Mila esker!!

### Ikastaroak

Euskara ikastaro teknikoak Atsasun (II). EGA titulua edo maila bereko ezagutza (CI) duten toki

administrazioko langileei zuzendua dago. Otsailak 14, 21 eta 28; martxoak 7, 14 eta 21; apirilak 11,18, 25; eta maiatzak 2, 9, 16 eta 23. Orduetgia: ostegunetan 8:00etatik 10:00etara. Altsasuko liburutegian. Argibide gehiago: Sakanako Mankomunitatea 948 444840 eta euskara1@sakana-mank.com

**Photoshop.** Etxarri Aranazko kultur etxean otsailaren 16an, martxoaren 2an eta 9an, 10:00etatik 13:15era. Udaletxeko kultur bulegoan izena eman hilaren 12a baino lehen. 42 €.

**Photoshop.** Etxarri Aranazko kultur etxean, otsailaren 23an, martxoaren 16an eta 23an, 10:00etatik 13:15era. Izen ematea eta informazioa udaletxeko kultur bulegoan, 948-46 09 30 telefonon edo [kultura@etxarriaranatz.com](mailto:kultura@etxarriaranatz.com) helbidean. 42 €. Etxarriko udala.

#### AESeK ikastaro hauek antolatu ditu.

"Komunikazio eraginkorra bezeroarekin" martxoaren 11tik 21era, 20 ordu; "Logistika eta stocks: kudeaketa" otsailaren 15etik martxoaren 15era, 20 ordu; "Sare sozialak enpresan eta on line erretputazioa", otsailaren 19tik martxoaren 21era, 30 ordu. "Enpresarako ingelera", apirilaren 2tik maiatzaren 23ra; "Kosteen analisisa erabakiak hartzeko laguntza gisa", apirilaren 8tik 22ra; "Blog-ak eta web orriak sortzeko enpresei begira", apirilaren 8tik maiatzaren 13ra.

**Jaiotzak egiteko ikastaroa.** Sakanako belenzaleen elkarteak antolatu du martxoak. 40 ordu, ostiralean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara, elkartearen Olaztiko egoitzan. Izena emateko hots egin: 606-

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

22 76 12, 616-34 75 11 edo 948-56 31 94.

#### UGTk ikastaro hauek antolatu ditu.

"Eskorga jasotzailea gidatzeko" otsailaren 16tik apirilaren 16ra; "Planoen interpretazioa" martxoaren 4tik 21ra; "Testu-tratamendua" martxoaren 9tik apirilaren 20ra; "Lehengaien manipulazioa" apirilaren 2tik 29ra; "Eskorga jasotzailea gidatzeko" apirilaren 6tik maiatzaren 4ra; "Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Elektrezitate 1" apirilaren 8tik maiatzaren 20ra; "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra; "Testuen tratamendua", martxoaren 9tik apirilaren 20ra; "Soldadura TIG (Iruñean), maiatzaren 4tik 25era.

**FOREM Navarrak eta CCOOk antolatutako ikastaroak.** Informazio gehiago: 948-13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonómico.php>

### Lehiaketak

#### Palindromo lehiaketa deitu du AEDK.

Palindromoa: aurretik atzera naiz atzetik aurrera, berdin irakurtzen den hitza edo esaldia. Epea: otsailaren 15a. Informazio gehiago [www.aedelkarte.com](http://www.aedelkarte.com)

#### 5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa.

Lanak bidaltzeko epea apirilaren 19ra arte izango da. Informazio gehiago: [www.elkar.com/lehiaketa](http://www.elkar.com/lehiaketa)

### Oharrak

#### Irrien Lagunen jaialdirako gonbitea.

Otsailaren 16an goizean. Doaneko bi gonbidapen

banatuko zaizkio Sakanan erroldatuta dagoen eta 2010 eta 2011n jaiotako baktzari. Argibideak <http://ttiki.com/46505>. 8ra arte sarrerak salgai egongo dira (5 €) Sakanako Euskara Zerbitzuan. Txarteldegian egunean bertan.

#### Mus txapelketa azkarra Lakuntzan.

Otsailaren 23an, larunbatean, 16:00etatik aurrera igerilekuan. Bikoteko 10 €. Taberna eta haurrendako espazioa izanen dira. Parkearen alde dirua ateratzeko.

#### Etxarri galdeketa egiteko.

Autodeterminazioari buruzko herri galdeketa egin ahal izateko sinadurak biltzen hasi dira. Interesatuak udaletxetik pasa, astegunetan 10:00etatik 14:00etara.

#### Lakuntzako Parkea Martxan saskien zozketako zerbaki sarituak.

1. saskia: 01312 (Eva Cerviñok saldua); 2. saskia: 08779 (Cristina Razkinek saldua); 3. saskia: 04131 (Mari Jose Arregik saldua); eta 4. saskia: 05770 (Oihana Aldabek saldua). Eskerrik asko Lakuntzako komertzio, taberna eta denda guztiei eta parte hartu duzuen guztioi.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Pikuxar Mus Txapelketa azkarra.** Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatoria. [www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikuxar-mus-txapelketa-azkarra](http://www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikuxar-mus-txapelketa-azkarra). 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

#### Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada.

DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore Narbarte, Marketing saila, 943-36 30 40 telefonon, [n.narbarte@elhuyar.com](mailto:n.narbarte@elhuyar.com) eta [www.elyuhar.com](http://www.elyuhar.com) helbideetan.

#### Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948-56 38 50 (klinika) edo 689-03 51 20 (Patxi) telefonoe-

### JAIOTZAK

- Aiert Flores Berastegi, otsailaren 3an Altsasun.
- Erik David Pantiru, otsailaren 4an Irurtzunen.
- Nicolas Alvarez Carrillo, otsailaren 4an Irurtzunen.

### EZKONTZAK

- Migel Jose Oraá Azpilikueta eta Aroa Gonzalo Bailón, otsailaren 8an Altsasun.

### HERIOTZAK

- Agustina Larredonda Lacunza, otsailaren 3an Altsasun.
- Avelina Lopez Munguira, otsailaren 4an Altsasun.
- Felipe Zeberio Maiza, otsailaren 4an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

tara hots egin dezatela.

#### Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

#### Eskuratu zure beleixeguaix txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

#### Etxeko ogirik nahi? Sukaldea margotuko al didazu?

Trukatu zure denbora. Ordu bat-ordu bat. Eska ezazu informazioa Larrezabal denboraren kutxan, [larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com) posta elektronikoa.

# kirola >>

## Pilota

# Elkarren kontra kontra

IRUJO-ZABALETA EZKURDIA-ZUBIETAREN KONTRA LEHIATUKO DIRA GAUR IRUNEN. ZABALETA TXAPELKETAKO SENTSAZIOETAKO BAT IZATEN ARI DA ETA EZKURDIK ETA ZUBIETAK AZKEN BI PARTIDAK IRABAZI DITUZTE. BI BIKOEK HAIZEA ALDE DUTE, ANIMUZ ONGI DAUDE ETA LEHIA OSO ESTUA ESPERO DA

### Binakako Txapelketa. Puntuak.

- 7 puntu: Irujo-Zabaleta
- 5 puntu: Olaizola II-Ibai Zabala  
Bengoetxea VI.-Beroiz
- 4 puntu: Titin III.a-Merino II.a
- 3 puntu: Ezkurdia-Zubieta  
Berasaluze VIII.a-Albisu  
Xala-Barriola
- 2 puntu: Arretxe II.a-Begino

### Binakako 9. jardunaldia

Irujo-Zabaleta/Ezkurdia-Zubieta (gaur, ostiralean, hilak 15, 20:15ean Irunen. ETB 1)

Binakako Txapelketa inoiz baino estuago dago. Irujo eta Zabaleta daude buruan, 7 punturekin, bi bikok bosna puntu dituzte, biko batek 4 puntu eta hiru bikok hiruna puntu, tartean Ezkurdiak eta Zubietak. Hortaz, eta hasierako ligaxka despeditzeko 6 jardunaldiren faltan, edozer gerta daiteke, final laurdenetako sailkapenerako ezer ez baitago erabakita.

### Sakandarrak elkarren kontra

Sakandarrok bihotza erdibituta izango dugu, sakandarren arteko lehia izango baita: Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak, Irujorekin batera, Joseba Ezkurdia arbuzarraren eta Aitor Zubieta etxarriarraren kontra jokatu du. Bi bikoak garaipen ikusgarriak lortzetik datoz-Zabaleta txapelketako sentazioetako bat da eta sailkapeneko buru dira- eta Ezkurdiak Gonzalez ordezkatu zuenetik bi garaipen jarraitu lortu dituzte Ezkurdiak eta Zubietak. Sakana bikotea senda eta fresko dago. Hortaz, bi bikoek haizea alde dute, animuz eta moralez gainezka dau-



Adarragako partida eta gero dena dira loreak Jose Javier Zabaleta etxarrendarrarendako. Izan ere Etxarreno atzelariak eta Irujok garaipen itzela lortu zuten Titin eta Merino errioxarren gotorlekuan, Adarragan (20-22), lehia oso estuan. Partida oso lehiatua izan zen, gogorra eta ikusgarria, eta nahiz eta zaleak kontra izan, garaipena Nafarroara etorri zen. Denek jokatu zuten ongi, baina Zabaletaren papera nabarmendu nahi dugu. Errioxarren gotorlekuan presio handia zuten Irujok eta Zabaletak. Etengabe jotzea; hori izan zen beraien estrategia. Baina errioxarrek defentsa ikusgarria egin zuten. Lehia gogorrean, Zabaleta eta Merino atzelarien borroka ikusgarria izan zen. Biak aritu ziren ongi, baina Zabaleta nabarmendu zen. 20ra berdinduta, akaso Zabaletak presioaren eragina nabaritu zuela pentsatzen zuten askok, baina Etxarreno hazi egin zen: bi eskukada bikaini esker, ia erreboteraino joan zirenak, Merino jokoz kanpo uztea eta 22ra heltzea lortu zuen Zabaletak. Ikusgarria. "Etxarreno debut ikusgarria ari da burutzen goi mailako txapelketan, baina Adarragan doktoratu egin zen. Zabaletak demostratu zuen frontoi atzean aro bat markatzeko baldintzak badituela" zihoen astelehenean Diario de Noticiasek.

de eta partida oso estua eta lehiatua espero da. Asteazkenean materiala aukeratu zuten eta bi bikok konforme azaldu ziren aurkeztutako materialarekin. "Ez diogu klasifikazioari erreparatzen. Irunen beti bezala aterako gara, partida irabazteko asmoz. Materiala ona da eta frontoiak zoru noblea duela dirudi" adierazi zuen Zabaletak. "Nahiz eta bi garaipen segidan lortu gauzak nahiko zail ditugu, baina gurearekin jarraituko dugu. Partidaz-partida joan behar gara" esan zuen, bere aldetik, Joseba Ezkurdiak.

### Ezkurdia-Zubieta, sakandarraren garra

Ezkurdiak eta Zubietak Binakako Txapelketako 3. puntua poltsikoratu zuten astelehenean Tolosan, lesiotik osatuta bueltan dagoen Xalari eta Abel Barriolari 14-22 irabazi eta gero. Sakandarrek partida bikaina egin zuten eta aurreko partidaren izan zuten garra berberarekin aritu ziren.

Aitor Zubieta bikain aritu zen. Nagusi izan zen atzean, eta bizkarra erakutsi zion Barriolari. Gainera, Xala ere jokoz kanpo utzi zuen. 10-2ko partziala lortu zuten

sakandarrek, partida desorekatuz (7-15). Tarte horretan Ezkurdiak errematean asmatu zuen. Ondo hautatzen ditu errematerako pilotak, aukera ona duenean saiatzen da, eta astelehenean ongi ibili zen. 11-15era gerturatu ziren Xala eta Barriola, baina ez gehiago, Ezkurdia berriz ere jokoan sartu zelako, bere tantoekin eta Xalaren hutsekin batera 12-20 hurbilduz. Bukaeran, 14-22 gailendu ziren Ezkurdia eta Zubieta, Beotibarrera hurbildu ziren zale sakandarrekin batera garaipena ospatuz.

## Futbola

### 3. MAILA

#### 24. JARDUNALDIA

#### LAGUN ARTEA 0 - OBERENA 4

Lehen zatian lakuntzarrek dominatu zuten baina ez zuten kontrako atean asmatu. Oberena finago aritu zen eta gol sorta ederra sartu zion Lagun Arterari.

Sailkapena >>

- 1. Cirbonero ..... 51 p
- 12. Lagun Artea ..... 32 p

Asteburuko jardunaldia

#### LAGUNAK - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 16:00etan, Barañainen)

### ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

#### 18. JARDUNALDIA

#### LAGUNAK 0 - ETKARRI ARANATZ 2

AMAI - ALTSASU (atzeratuta)  
Partida oso orekatuan Etxarri eta Lagunak-ek serio jokatu zuten futbolera. Etxarri finago ibili zen eta 3 puntuak ekartzea lortu zuen.

Sailkapena >>

- 1. San Juan ..... 49 p
- 8. Etxarri Aranatz ..... 21 p
- 10. Altsasu ..... 17 p

Asteburuko jardunaldia

#### ETXARRI - AMAYA

(Igandean, 15:45ean, Etxarri)

#### ALTSASU - LEZKAIRU

(Igandean, 16:15ean, Altsasu)

## Areto futbola



Jesulitok partidako onenaren saria jaso zuen. WWW.XOTA.ES

## Triman Navarra Xota goian

Triman Navarra Xotak garaipenaren xenda berreskuratu zuen, Burela taldea 5-3 menpean hartu eta gero. 2. zatian defentsan serioago aritu ziren irurtzundarrak eta gol aukerak ere hobe aprobetxatu zituzten. Horrela, bukaeran 5-3 gailendu ziren Imanol Arregiren mutilak, sailkapenean gora eginez.

### INTER MOVISTAR, ARERIO ZUZENA

Ohorezko mailako 16. Jardunaldia jokatu, Bartzelona da liderra, 37 punturekin. El Pozo bigarrenak 36 puntu ditu, Inter Movistarrek eta Caja Segoviak 34 puntu, eta Triman Navarrak 33 puntu. Hortaz, osopuntu gutxiren alde dago sailkapeneko goialdean eta gauza estu-estu dago. Gaur, ostiralean, 21:00etan Madrilen jokatu du Trimane, hain zuzen ere 4.a den eta arerio zuzena duen Inter Movistar talde ahaltsuaren kontra. Ea talde ahaltsuaren kontra hazi egiten diren Imanol Arregiren mutilek eta goiko postuetan gora egiten duten.

## Rallya

# Olaztin Rallysprinta martxoaren 9an

Sakana Motorsportek Guaixe eta Beleixe lagundu nahi ditu kirol ekitaldiarekin

Sakana Motorsportek antolatuta, martxoaren 9an, larunbatean I. Olazti-Urba Rallysprinta jokatuko da. Horretarako puntako zirkuitu eremua antolatu du Motorsportek, Olazti herri gunetik hasi, Urbasako Altamiraraino igo, Altsasurantzko bidetik jaitsi eta Olaztiraino helduko dena, bihurgunez, aldapaz eta zailtasun teknikoko maniobrez josia.

### Gertu jarraitu ahalko da

Antolatzaileek adierazi dutenez, zaleek gertutik ikusi ahal izango dute proba, segurtasun eremuak zainduz beti ere. "Dagoeneko 20 autok eman dute izena baina oraindik pilotu eta kopilotu gehiago espero ditugu. Proba Nafarroako Rallysprint txapelketarako baliagarria izango da eta zale-tuek puntako ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute, hemen Olaztin bertan" nabarmendu dute.

### Jasotako dirua Guaixe eta Beleixe bulkatzeko

Sakana Motorsportek Guaixe eta Beleixe Sakanako euskal komunikabideen alde egin nahi izan du. Horrela, komunikabide horiek sustatzen dituen Bierrik fundazioarendako izango da Olazti Urbasa Rallysprinteko sarreraren kobratuko den dirua. "Bierrik fundazio-kideek sarrera kobratuko dute eta rallysprintaren garbiketa lan guztia egingo dute trukean. Horregatik Rallysprinta ikustera datozen guztiek, argi izan dezatela sarrera ordaintzen eta tramo garbi uzten Guaixe-Beleixeri mesede handia egingo dietela" adierazi dute Sakana Motorsportekoek.

# 948 564 275

Martxoaren 9an, Olaztiko Rallysprintean, sarrerak kobratzen eta garbiketa lanetan lagundu nahi duten sakandarrek izena emateko deitu behar duten telefonoa, Bierrik fundazioarena.

Ildo honetan, Bierrik fundazioak boluntarioak behar ditu aipatu garbiketa lana eta sarrera kobratzeko lana aurrera eramateko. Horretarako bulegora deitu behar dute interesatuek.

+Informazio gehiago 11 galderak elkarriketan.

## Pista txirrindularitza



Londoneko Joko Olinpikoetan aritu eta gero, Brasilgoetan aritu nahiko luke altsasuarrak. Horretarako lan handia du aurretik.

## Hodei Mazkianan Minskeko Mundialean

Otsailaren 20tik 24ra Pista Txirrindularitzako Munduko Txapelketak jokatuko dira Minsken. Espainiako selekzionatzaileak aukeratu dituen 13 pistarden artean dago Hodei Mazkianan olinpikoa. Brasilgo joko olinpikoetan aritzea da bere hurrengo erronka.

## Txirrindularitza



Jorge Azanza 52.a izan zen Mediterraneoko Tourrean. Pablo Urtsunek azkenaurreko etapako eguneko ihesaldian parte hartu zuen.

## Egoi eta Azanza Algarven eta Verdugo eta Erbiti Andaluzian

Otsailaren 14an hasi eta 17an bukatuko da Volta do Algarve. Euskaltekin lanean dabilta Egoi Martinez etxarriarra eta Jorge Azanza altsasuarra. Bestalde, igandean hasi eta osteguneraino luzatuko da Andaluziako Itzulia. Imanol Erbiti hiriberriarak Valverde eta Rojas laguntza izango du xede, eta Gorka Verdugo txirrindulari laranjak Antonendako eta Nieverendako eginen ditu talde lanak.

## Kiroldegia

## SDAk kiroletan egindako lana astelehenean erakutsiko du lortian

Altsasuko Sociedad Deportiva Alasua kirol elkarteak kiroletan egiten duen lanaren aurkezpena eginen du otsailaren 18an, astelehenean, 19:30ean, lortia Kultur Gunean. Iku-sentzunezko proiektio baten bitartez SDAk txirrindularitzan, pilotan eta batez ere futboleko egiten duen lana ezagutzera emango du. Ekimenaren helburua bazkideak sentzibilizatzea eta 2013 Caja Navarraren egitasmo aukeraketan SDAREN alde egitera animatzea da.


## Mendia

## Mendia hizpide Irurtzunen

Mendiari buruzko jarduerak antolatu dituzte Iratxo Mendi Elkarteak eta Aizpea Euskara Taldeak, otsailaren 13tik martxoaren 1era arte.

Irurtzango Iratxo Mendi Elkarteak eta Aizpea Euskara Taldeak, Pikuxar euskal txokoaren eta Irurtzango Udalaren laguntzarekin, mendiari buruzko jarduerak antolatu dituzte. Aipatu jarduerak asteazkenean hasi ziren, Joseba Arlegi irurtzundarrak Nepali buruz prestatutako argazki erakusketa-aren mustutzearekin, eta martxoaren 1ean despedituko dira. Izenak dioen bezala eta mendia hizpide hartuta, argazki erakusketa, hitzaldiak, diaporamak eta beste izanen dira jardunaldietan, igandean Ezkabara eginen den mendi ibilbidea barne. Kasu honetan Berriozarreko txoko bereziak eta Ezkaba gotorlekua gertutik ikus-teko parada izanen da.

Asteazkenean mustu zen, Pikuxar euskal txokoan, Joseba Arlegi mendizale irurtzundarrak "Nepa-



Joseba Arlegi Yosemite gora. Orain Nepalgo argazkiak bildu ditu. ARTXIBOA

leko Ekialdea, sherpen herrialdea" izenburupean prestatutako argazki erakusketa. Erakusketa ikusgai dago otsailaren 24ra arte. Horretaz

gain, Jotas mendizalea, Eneko Etxebarrieta eta Mikel Zabalza mendizaleek euren lanak ekarriko dituzte Irurtzunera.

## Aizkora

BINAKAKO URREZKO AIZKORA

## Nazabal eta Zubiaga finaleko txartelaren bila

BIHAR REKONDO ETA AZURMENDI DITUZTE ZAIN BILBON FINAL ERDIETAKO ITZULIA JOKATZEKO

Binakako Urrezko Aizkoran Otaegi eta Otañok lortu dute finala jokatzeko lehendabiziko txartela, final erdietako itzulian Atutxa eta Muger-tza menpean hartu eta gero. Beste bikote finalista nor den bihar erabakiko da Bilbon, Floren Nazabalek eta Jose Angel Zubiagak Jon Rekondo eta Iñaki Azurmendi izango baitituzte aurkari final erdieta-ko itzulian. Itzulia Bilboko La Esperanza frontoian jokatuko da, bihar, larunbatean, 12:00etan (ETB 1).

Joaneko lehia Nazabalek eta Zubiagak garaipen handia lortu zuten (22:34), ia bi minutuko alde atera baitzieten Rekondori eta Azurmendiri (24:24). Hortaz, finala lortzeko dena dute alde. Aldiz, Rekondok eta Azurmendi ia bi minutu-



ko alde hori gainditzera behartuta daude. Ia ezinezkoa, baina kanporaketa jokatu arte ez dago ezer erabakita. Biko bakoitzak 16 enbor erdibitu beharko ditu, 6 lanetan.

## Erdozia eta Beltza Zilarrezkotik kanpo

Binakako Zilarrezko Txapelketan ordezkari sakandarrak gabe geratu gara, Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza etxarriarrek Kañameres III.aren eta Jauregi-aren kontra Zerainen zuten kanporaketa galdu eta gero. Jokoa zeuden bost lanetan gailendu ziren Sakanako Aizkora Eskolan trebatu den Arkaitz Jauregi arabarra eta Julen Kañameres (10:19), baina horretarako lan handia egin behar izan zuten, oso alde gutxi atera baitzieten Juanjo Erdoziari eta Goizeder Beltzari (10:56).

## Mendiari buruzko jarduerak

Otsailak 17, igandea:

Ezkabara mendi irteera (8:30ean Iratxon). Berriozarko udal baratzak, Ezpeleta jauregia Alde Zaharrean, egindako bide eta iturri berriak, Ezkaba gotorlekua, Botillen hilerria, Artika eta Berriozar.

Otsailak 21, osteguna:

Jotas-ek eskainitako diaporama: Erreka-zuloak eta arroilaak Reunion Irian (19:30ean, Pikuxarren). Gaztelaniaz, dohainik.

Otsailak 26, asteartea:

Mikel Zabalza diaporama: Encordados (19:30ean, Kultur Etxean). Prezioa: 2 euro.

Martxoak 1, ostirala:

Eneko Etxebarrietaren diaporama: Myanmar irribarrean sorlekua (19:30ean, Iratxon). Euskaraz eta dohainik.

Otsailaren 13tik 24ra:

Joseba Arlegiren argazki erakusketa: Nepaleko Ekialdea, sherpen herrialdea (Pikuxarren).

## Mendia

## Pasai Donibanetik Grosera Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak ibilbide polita eta berezia antolatu du otsailaren 24rako. Pasai Donibanetik abiatuta Gros izango dute helmuga, Donostian. Mendi ibilaldi polita, zalanza gabe. Mendizaleak eramateko autobusa otsailaren 24an goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik, eta geldialdiak eginen ditu Sakanako gainontzeko herrietan, mendizaleak hartzeko. Izena ematea zabalik dago ostegunera arte ohiko tokietan edo 636 827 166 telefonon.

## ERGOIENAKO BIRA SAKANAKO IKASTOLEKIN

Igandean Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletako mendi taldeak antolatu, etxeko txikienekin elkarrekin egiteko mendi ibilbidea burutuko da: Ergoienako Bira, hain zuzen. Hitzordua goizeko 10:00etan jarri dute, Lizarragako elizan. Jakina, txikienean ardura norberaren guraso-ek edo arduradunek izango dute.

**JUANLUZENA**  
SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera  
tel. 948 604 571

ODERITZ

**GANUZA**  
SUKALDEAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Elektragailuak

**GANUZA**  
GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203  
faxes: 948 460 673  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI-ARANATZ

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

# kultura >>

**TXUSPO ARCON:** Gaurtik igandera arte Madrilgo arte garaikideko nazioarteko azoka, Arco, eginen da. 32. edizio honetan 201 galeriek parte hartzen dute.

Valentziako Valle Orti galeriaren standean izanen da ikusgai Txuspo Poyo altsasuarren lana.

## Bosgarrenez **Salazar**rek altsasuarrei haien historiako irudiak eskainiko dizkie

**Astelehenean, 18:00etan, mustuko da argazki-liburu erakusketa eta lortia kultur gunean martxoaren 3ra arte izanen da ikusgai**

**H**erriarekin duen lotura. Kezka hori akuilu zuela hasi zen Begoña Salazar Romo Altsasuarrekin lotura zuten irudiak biltzen. 2009an XX. mendeko Altsasuko oroitzapenak eta irudiak jasozten dituen argazki-liburuz osatutako erakusketa arrakastatsua ondu zuen. Orduetik urtero erre-

pikatu da erakusketa.

Hasieran Salazarrek berak opatutako materialekin eta jendeari eskatutakoarekin diseinatzuten zituen argazki-liburuak. Lehen edizioetan ate joka ibili behar izan zuen bildumagileak, ezagutzen ez zuen jendearekin harremana eginez, esperientzia baliotsua bilakatu zitzaizen batari eta besteei.

Urteroko erakusketak segida izanen zuen zalantzaren aurrean, azken urteetan hainbat altsasuar

izan dira berarengana jotzeko interesa izan dutenak. Esaterako, aurtenerakutsiko diren liburu berrietako 100 argazki pertsona bakar batek utzitakoak izan dira.

Astelehenean mustuko da erakusketa eta Salazarrek urte hauetan erakusketak antolatzen lagundu dituzten altsasuarrak gonbidatu ditu, eskerrak emateko. Guztiak elkarrekin liburu berriei disfrutatzei aukera izanen dute. Bost urte hauetan 100 bat ale diseinatu ditu Salazarrek.



## Vendetta errepedean

Diskoa berria aurkezteko bira hasi berri du

**P**ello Reparaz (tronboia eta ahotsa) eta Luisillo Kalandraka (baxua, kontrabaxua eta ahotsa) kide dituen taldeak, Vendettak, Durangoko Azokan aurkeztu zuen *Atzo, Gaur eta Bihar* (2012, Baga Biga) diskoa. Ska doinuez, reggaez eta rockaz gatzpipertuak eskaintzen dizkigu boskoteak, aurreko lanean zabaldu-tako bidean sakonduz.

Diskoa aurkezteko bira Bartzelonan abiatu zuten ostiralean, eta harako bidean zirela Pello Reparaz (tronboia eta ahotsa) **Beleixe Irratian (FM 107,3)** izan zen. Errepideak estatuko hainbat hiri, Euskal Herria eta Suitzako eszenatokiak eramanen ditu Vendettakoak. Uda ondoren Amerikara joanen dira.

Kritikek hirugarren diskoaren maila nabarmendu dutela eta pozik azaldu da Reparaz, "orain jendearen erantzuna ikusi behar



da. Salmentan ongi ari da eta interneten asko mugitzen ari da. Suposatzen da hori ere kontzertuetan islatu kodela". Azken lanaz, "indartsua, Vendettaren esentzia galtzen ez duela" adierazi zuen Reparazek **Beleixe Irratian (FM 107,3)**.

### Ibilbidea

*Vendetta* (2009, GOR) lehen diskoarekin alderatuta "taldea asko" aldatu dela aitortu du arbizuarrak. Aurreneko lanak "freskotasuna" bazuen ere, oraindik talde gisa trinkotzeko zeudela esan zuen Repare-

zek. Ehun kontzertu baino gehiagoko ibilbidea egin da gero argitaratu zuten *Puro Infierno* (2011, Baga Biga). "Vendettarendako salto garrantzitsua izan zen, estatuan eta Europar mugitzen hasi ginen. Kantalanduagoak, jendeak eta kritikak gehiago kontuan hartu zutena".

Reparazek esan zuenez, "hirugarren disko honekin beste inflexio puntu bat sortu da. Kantalanduagoak eta ekoiztuagoak. Orain hasi dugun biran 3. disko honen eta ibilbide horren garapena kontzertuetan islatu nahi ditugu". Horretarako errepertorio "dinamiko eta kañeroa" prestatu dute Vendettakoek.

Taldean Javier eta Pello bera dira sortzaileak. Azken disko honetan Luisillo etxarriarrak sortutako kantu bat ere sartu dute. Reparazek esan zuenez, "batetik bestera, kantak eta lirika oso ezberdinak izaten dira". Berak, konposatzeko garaian nola egiten duen galdetuta arbizuarrak **Beleixe Irratian (FM 107,3)** zera esan zuen: "nik hartzen ditut inguruan ikusten ditudan problemak lehen pertsonan lantzen saiatzen naiz, sentimenduen bidez, beti ere. Ekainak 24 kantua, esaterako, Arbizun falta direnei (Jesus Mari Mendinueta presoari) eskainitakoa da".

### Suarez, Hitzak Hegan



**E**rrezitaldi eta kontzertuak dau-  
de iragarrita Hitzak Hegan  
olarki topaketan, Bidasoaldeko  
Kabigorri Ateneoak antolatutako  
duena. Asteartean abiatu zen progra-  
ma, Irungo ateneoa eta Donostia-  
ko Koldo Mitxelena Kulturunea  
(KMK) egoitza dituenak. Azken  
horretan gaur, 19:30ean, Castillo  
Suarez poetak parte hartuko du.  
Altsasuarrak argitaratu berri  
duen *Urtebetetze festa* bildumako  
poemak aletuko du. Horretarako  
Borja Estankona musikariaren  
laguntza izanen du. Donostiara  
joan ezin duenak, KMKren web  
orriaren bidez zuzenean ikusteko  
aukera izanen du.

### Gazteendako argazki rallya

**O**tsailaren 24an, igandean, 18  
urte bitarteko edozein haur  
eta gaztek parte hartu ahaliko du  
Altsasuko Sagrado Corazón ikas-  
tetxeak antolatutako argazki rally-  
an. 16:30etik 18:30era bitartean  
parte-hartzaileek 20 argazki digital  
ateratzeko aukera izanen dute, beti  
ere, Altsasuko hirigunea, parkeak  
eta lorategiak gaitzat hartuta. Haie-  
takoren batean aipatu ikastetxea  
agertu beharko da. Izena eman nahi  
dutenek lehiaketa hasi baino ordu  
erdi lehenago edo lehiaketako blo-  
garen bidez egin dezakete, concu-  
soras.blogspot.com. Hiru argaz-  
kirik onenek sari bana jasoko dute.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**Sorgiñak**  
taberna  
  
**LAKUNTZA**  
948 576 357

9 lagunendako  
**TAXIA**  
Jon Kordon  
  
948 500 388 / 629 428 025  
**IRURTZUN**

**xapatero**  
taberna  
948 460 162  
**Etxarri-Aranatz**

## bazterretik

Ibai Hernaiz

## Dena gezurra da, gauza batzuk izan ezik

Hala da jaun-andreok Gure Marianitok esan duenez, dena gezurra da, baina gauza batzuk egia dira. Inork ulertzen du? Bueltatxo batzuk emango dizkiogu: Dirudienez, Caja Navarra-komobi da guztia gezurra da, inork ez du dietarik jaso, ez UPN-ko inork ez PSN-ko inork ere, ezta beste inork ere. Gainera, ez diote Caixari saldu, gurea jarraitzen du izaten (naparguztiena, ez ahaztu) eta bere balioekonomikoa ez da jaitsi. Gainera, Cerverak ez zuen Iruñeko harriesetan ezer jaso. Horregatik ez dute parlamentuan ezer ikerterik nahi, dena gezurra baita, gauza batzuk izan ezik.

Barcnas ez zen PP-ren diruzaina, diru koaderno hori ez zen berea eta ez du diru beltza inoiz erabili berarentzat edo bere alderdi politikoko inorri ezer ordaintzeko. Gainera, gure Marianito & Company ez dute zer ikusirik (argi dago beraien Errenta Aitorpena erakutsi baitute). Espainiako gobernua ez dago korrupziorik. Dena gezurra da, gauza batzuk izan ezik.

Balantzian ere ez dago inolako korrupziorik eta Würtel epailearen asmakizun bat da. Dena gezurra da, gauza batzuk izan ezik, noski.

Gure "Juancarlitos" erregea ere, ez da sekula Afrikan egon Elefanteak tiroz ehizatzen. Eta bere familiako denak osopersonal langileak eta zuzenak dira. Bere alaben senarrak ere oso pertsona langileak dira, eta oso azkarrak. Batez ere eskubaloira jolasten zuen hura. Normala, euskalduna dela diote, baina hortan bai dudak ditudala. Hori guztia ere gezurra da, gauza batzuk izan ezik. Sakanan dena oso ongi dijoa. Nafarroako Gobernuak asko laguntzen digu. Dena ondo dijoa. Hori guztia, noski, gezurra da, gauza batzuk izan ezik.

Laburbiltzen: nolako potroak dituzten batzuk!

## Hirugarrenaren faltan, baditugu bi bertsolari final erditan



**N**afarroako Bertsolari Txapelketako asteburuko azken-laurdeneko bi saiotan aritu ziren bertsolari sakan-darrek lehiaketan aurrera egitea lortu dute: Eneko Lazkozek saiko onena izateagatik, eta Oier Lakuntza, puntuazioagatik. Josema Leitza izan daiteke aurrera

egin dezakeen Sakanako hirugarren bertsolaria. Arbizuarrak larunbatean, 17:30ean, Zubiriko Gautxori jatetxean ariko da bertsoan. Eta harekin batera Oskar Estanga, Ander Fuentes "Itturri", Ainhoa Aranburu, Iban Garro eta Unai Uberetagoena.

Eneko Lazkozek orain arte txapelketako puntuazio handiena lortu zuen Iturenen, 357 puntu. Saio bizi eta txinpartadunaz gozatzeko aukera izan zuten 160 bertsozalek. Etxarriarra saioko onena izan zen, alde handiz. Lazkozek final-erditarako zuzeneko txartela eskuratu du eta martxoaren 3an Etxarri Aranatzen jokatu den final-erdian ariko da.

Larraintzarko kultur etxean aritu zen Oier Lakuntza, 100 bertsozaleren aurrean. Urdiaindarrak ederki aritu zen eta kanporaketan nagusi izan zen. Julen Zelaietarengandik gertu gelditu zen Lakuntza, 320,5 puntu lortuta 7,5 puntura geldituz. Lakuntzak poltsikoan du final erditarako txartela. Izan ere, azken-laurdenetako saioak irabazi dituzten bertsolariak kenduta, urdiaindarrarena laugarren puntuazio onena da. Non kantatuko duen zehaztea besterik ez da falta.

Lakuntzak poltsikoan du final erditarako txartela. Izan ere, azken-laurdenetako saioak irabazi dituzten bertsolariak kenduta, urdiaindarrarena laugarren puntuazio onena da. Non kantatuko duen zehaztea besterik ez da falta.

## Gaur Ez, mazedonia

Melodiak eta doinu gogorragoak biltzen dira taldearen izen bera duen diskoan

**E**stilo aldetik aberatsa da taldea. Bakoitzak bere gustuak ditu, metaleroagoak, poperoagoak. Guztia uztartzen saiatzen gara. Mazedonia". Jule Goñik, taldekokantariak, **Beleixe Irratian (FM 107,3)** emandako azalpenak dira. Gaineratu zuenez, adin aldeagatik eta talde mistoa izateagatik ere bada "mazedonia" taldea.

Gaur Ez-ek joan den urte akaberan argitaratu zuen diskoa (10 kantu eta Ezin egon kantuaren bideoklipa). Julek **Beleixe Irratian (FM 107,3)** esan zuenez, diskoak taldearen azken bi urteetako lana jasotzen du. 2011ko garagarrian

4 abesti zituen aurreneko maketa grabatu zuten. Urte bat geroago estudioan sartu eta beste 4 abesti jasota utzi zituzten. Azaroan grabatutako bi kantu gehiagorekin ondu zuten diskoa. Guztiak Iruñeko K estudioan grabatu zituzten, Alberto Porres teknikariarekin.

"Maketa guztiak bilduta lan bat kalera genezake", otu zitzaizen taldekideei. Ideia gauzatuta, oso pozik gelditu dira. "Eta laguntzen dizu, zuk ere zure lana pixka bat serioago hartzen, edo", esan zuen Julek **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. Diskoa kaleratzeko auto-ekoizpenaren alde egin du Gaur Ez taldeak. "Musika panorama nola dagoen ikusita, talde gehienak zerbait nahi badute behartuta daude bakoitza bere dirua gastatzera. Gure kasuan hala izan da". Diskoaren banaketa eta promozioa, hala ere, Gorko diskotxea egi-



ten ari da. Julek dioenez, "izugarriko laguntza da. Toki gehiagotara iris zaitezke".

## Lana

Diskoan ere taldearen izena duen kantua dago jasoa. Julek **Beleixe Irratian (FM 107,3)** esan duenez, "egun jakin batean zerbaiti aurre egiteko gai ez bazara, bihar behar bada bai". Maitasuna, gizarte arazo gutxi batzuk, batez ere arazo

existentzialen inguruan kantatzen dio boskoteak. Bi urte darमतza Jule taldean eta bera da doinuei letra jartzeaz arduratu dena, aurretik Xabik (baxua), Idoiak (gitarra) eta Barukek (kantari ohia) idatziak zituzten beste batzuk. Haiekin batera, Julenek (bateria) eta Alfredok (gitarra) osatzen dute Gaur Ez. Orain kontzerturik ez badute ere, udaberri-rako mugitzea espero dute.

Larunbata 16, **PIÑATA INAUTERIA**. Mozorrotu eta **ONGI PASA** inauterien azken txanpan!

10ta KULTURAREN ZENTROA. Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800. Tel. 948 324 100. www.facebook.com/10ta

<p><b>EL ORIGEN DE LOS GUARDIANES</b> IGANDEA 17 17:00</p>	<p><b>ARGO</b> OSTEGUNA 15 22:00</p>	<p><b>EL HOBBIT. UN VIAJE INESPERADO</b> IGANDEA 17 20:10 OSTEGUNA 22 22:00 IGANDEA 24 17:00 20:10</p>
--	--	--

Sarrerak salgai. Leihatila - 019 - entrados.com

## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 50%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 55%	euria: 28%	euria: 23%	euria: 35%	
Min: 5 Max: 9	Min: 0 Max: 13	Min: 4 Max: 12	Min: 8 Max: 10	Min: 4 Max: 11	Min: 4 Max: 10	Min: 4 Max: 11	

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	7.1	-0.8	157.8
Altsasu	8	0	168.8
Aralar	3.2	-4.6	-
Urbasa	5	-2	89

## : ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
17	25	6	11

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

## diseinua eta inpresioa

- logotipoak • publikazio digitalak
- eskaparteak • bisita birtelak
- albaranak • gutunazalak
- katalogoak • plotterak
- jatebuzendako kartak
- liburak • postalak
- merchandising

libretak

agendak

pegatinak

sartaldeak

uharteak

udal aldizkariak

948 564 275 argi@guaixe.net

Guaixe KOMUNIKAZIOA

# >> 11

## galdera

Iban, Joseba...

Sakana Motorsport taldea

Testua: Alfredo Alvaro eta Maider Betelu



## Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberran gutxienez Guaixea egon den 3 komertzioaren izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

- 1. Lehendabizikoz antolatu duzue rallysprint bat Olaztin, martxoaren 9an. Zergatik?**

Iaz Urbasako igoera ez antolatzea erabaki genuen, lizentzien konturafederazioen arteko arazoak zueudelako. Dena den, aurten, urria aldera Urbasako igoera egiteko asmoa dugu. Bitartean, martxoaren 9an I. Olazti-Urbasa Rallysprinta antolatzea erabaki genuen. Aspalditik Sakanan Rallyhandi bat antolatzeko asmoarekin gabiltza eta hau lehen pauso bat izan daiteke. Rallysprinta errepide itxi batean (tramo edo eremu bakarra) egiten den kronoaren kontrako lasterketa da.
- 2. Nafarroako Rallysprint txapelketarako baliagarria izango da?**

Bai. Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarria ere izan zedin saiatu gara. Ea 2014rako Euskal Herrikoan sartzea lortzen dugun.
- 3. Zein ibilbide izango du Olaztiko Rallysprintak?**

Ibilbidea ikusgarria izango da! Tramo edo eremuaren hasiera Olaztiko herritik barna pasatuko da. Gurutze estuz beteriko gune oso teknikoak izango dira. Herria utzi eta gero, igoerak, jaitsierak, rasanteak, bihurgune azkar eta oso itxiak... denetarik egonen da. Ziur gaude ikusleak ez direla aspertuko.
- 4. Autoak gertutik ikusteko aukera izango dute zaleek?**

Proba eremu itxi batean jokatu da. 4 pasada izanen dira norabide berdinean, azkeneko pasada gauez. Bai, autoak gertu ikusi ahal izango dira, proba ikusteko hainbat eremu baitaude. Jakina, beti ere, segurtasun neurriek markatzen duten distantziatik eta antolakun-

tzako boluntarioen azalpenei kasu eginez eta errespetatuz.

- 5. Zenbat autok eman dute izena momentuz?**

Momentuz 20ren batek. Kopuru polita da, hilabete bat falta dela kontuan hartzen badugu. 2012ko Euskal Herriko Rallye txapeldu-nordeak hemen izango ditugu, beste pilotu ikusgarrien artean.
- 6. Sakanako pilotuak ariko dira?**

Baietzespero dugu, nahiz eta gutariko askorentzat rallysprinta aurrera ateratzea lehentasuna den. Hortaz, denbora gutxiago daukagu kotxea martxan jarri eta babesleak topatzeko.
- 7. Giroa sortuko da eta polita izango da proba ikustea. Jende asko espero duzue?**

Jakina! Gutxienez 5.000-6.000 pertsona inguru espero ditugu. Gainera ibilbidea herri erditik pasatzen da, eta honi Sakanan betidanik egon den zaletasuna gehitzen badiogu mundiala izango da!
- 8. Segurtasuna bermatzea inportantea izango da zuek, ez?**

Hasieratik argi dugu mota honetako kirol ekintza batean segurtasuna ezinbestekoa dela. Ez ahaztu kotxe karrerataz hari garel.
- 9. Entzun dugu hainbat auto agertu omen direla Olaztiko entrenatzeko asmoz. Hau egitea ezinezkoa da, ezta?**

Tamalez Sakanako gazte batzuk agertu dira Olaztiko rallysprinta jokatu den barne eremuan abiadura handian, bizi lagunen etxetatik oso gertu. Gugeuk ikusi ditugu eta ezagutzen ditugu, karrera askotan beraiekin elkartu izan

gara eta. Hortaz, Sakanako Motorsportetik eskatu nahi diegu, mesedez, benetako zaletuak badira, Olaztiko bizilagunak, rallysprintean lan egingo duten boluntario guztiak, lagundu diguten babesle guztiak, eta eskuderia honetako kide guztien lana errespetatu dezatela. Sakanako Rallye eta Igoerak bueltatzeko esfortzu ikaragarria egiten ari gara, eta honen jarraipena guztion jarreraren esku dago.

- 10. Rallya martxan jartzeko pertsona asko egongo zarete lanean, ez?**

Eskuderia 10 pertsona gara. Rallysprinta antolatzeko 120 lagun inguru beharko ditugu, boluntarioen laguntzarik gabe ezinezkoa izango zaigu rallysprinta aurrera ateratzea. Norbaitek egunean bertan lan egiteko bere laguntza eskaini nahi badu gurekin kontaktuan jar daiteke (677 85 81 83 eta 607 87 20 17). Aldez aurretik mila esker.
- 11. Sarrerekin ateratakoa Guaixe eta Beleixe kuadeatzen dituen Bierrik fundaziorako izanen da. Zergatik erabakia?**

2011ko Urbasako Igoeran Olaztiko Gazte Asanbladarekin antzeko zehozer egin genuen.

Garbiketa lanak eta sarreren kobraketak eskuderiandako gatu bat gehiago suposatzen du eta kanpoko enpresa bat kontratzea baino nahiago dugu Sakanako kolektiboren bati aipatu lana eskaintzea. Denok dakigu Guaixe-Beleixeren egoera nolakoa den, eta bultzada handi bat emateko aukera ona dela uste dugu. Horregatik, Rallysprinta ikustera datozen guztiek argi izan dezatela sarrera ordaintzen eta tramo garbi uzten Guaixe-Beleixeri mesede handia egiten dietela.